



IRUDIA, EBALUAZIO-TRESNA

Irudia erabiltzearen abantailak ebaluazioan

Irudiak hainbat abantaila eskaini ditzake, gai edo testu baten inguruan ikasleek zer dakiten edo zer ulertu duten behatzeko.

- Lehenik eta behin, ikasleek ez dute hitzezko hizkuntza erabili beharrik. Hala, ikasleen arteko hizkuntza-ezberdintasunak alde batera geratzen dira euren ezagutzak ebaluatzeko orduan. Izan ere, posible da ikasle batek hizkuntza jakin bat menperatzen ez duenez ulertu duena adierazteko zailtasunak izatea, eta, ondorioz, idatziz adierazteko eskatzen zaionean, edukiak ongi ulertu ez dituela interpretatzea irakasleak.
- Irudia sortzeko orduan erabaki zehatzak hartu behar izaten dira, elementuen kokapena eta euren arteko loturak modu zuzenean adierazteko. Hala, ikasleek izan ditzaketen ulermen-akatsak zehaztasunez behatzeko baliagarri izan daiteke.

Beraz, ikasleen ezagutzak ebaluatzeko orduan marrazketa erabiltzeak hainbat abantaila izan ditzake, baina marrazki horiek ondo interpretatu eta ebaluatzea biziki garrantzitsua da marrazketa txertatzea erabakiz gero.

Kontuan izan beharrekoa

- Kontuan izan behar da beti ez dela ikasleen marrazteko gaitasuna ebaluatuko, eta hala jakinarazi behar zaie ikasleei.
- Posible da irudian hitzak nahiz esaldi sinpleak erabiltzea, kontua kontzeptuen arteko lotura zuzena eratu duten edo ez ikustea baita.
- Ondo zehaztu behar da marrazketaren helburua eta, ondorioz, ikasleak marrazkiaren bidez zer adierazi behar duen. Komenigarria izan daiteke, irakaslea izanik, zuk zeuk ere ikasleek entregatu beharreko marrazki bera egitea, ikasleei hura egitea eskatu aurretik.



Ebaluazio-errubrika propioak sortzeko urratsak

- Ondo zehaztu zein diren marrazkian agertu beharreko objektu, kontzeptu etaideiak. Ondoren, zerrenda itzazu.
- Sailkatu objektu, kontzeptu edo ideia horiek bi multzotan: behar-beharrezkoak/ ez hain beharrezkoak (xehetasunak).
- Zehaztu ikasleek marraztu beharreko objektu, kontzeptu edo ideia horien arteko lotura espezifikoak.
- Behin urrats horiek eginda, sortu puntuazio-taula bat.
- Ikasleak irudia eratu ostean, zenbatu ageri diren elementuak, eta behatu elementuen arteko loturak ondo burutu eta adierazi diren.

Ikasleek irudikatu dezaketen guztia aurreikustea zaila denez gero, irudia ebaluatzeko unean, kontuan izan behar dugu espero gabeko kontzeptuak nahiz ideiak ager daitezkeela eta horiek bere zuzentasunaren arabera ebaluatu beharko direla.

Lagungarri bazaizu, datozen orrietan aurkituko duzu errubrika sortzeko txantilo bat.



ERRUBRIKA ERAKETZEKO TXANTILOIA

AGERTU BEHARREKO ELEMENTUAK

Zerrendatu beheko laukitxoan irudian egon behar duten nahitaezko elementuak.

BIGARREN MAILAKO ELEMENTUAK

Zerrendatu irudian ager daitezkeen baina nahitaezkoak ez diren elementuak

PROZESUAK ETA ERLAZIOAK

Zerrendatu irudian nahitaez adierazi behar diren prozesuak edo ideien arteko erlazioak.

EGIN ZURE MARRAZKIA

Ikasleei marrazteko eskatuko diozunez gero, garrantzitsua da zuk zeuk ere jarduera bera egin eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak aurreikustea.





BETE TAULA

Hartu taula hau eta saiatu puntuazio bakoitzaren azpian hala puntuatuko zenituzkeen marrazkien adibideak gehitzen. Marrazkia nahitaez egin behar ez bada ere, komeni da adibide batzuk idaztea, ikasleek egin ohi dituzten akatsak egin ez ditzaten. Horrek ikasleen marrazkiak ebaluatzen hasi aurretik asko lagunduko dizu.

	0 PUNTU	1-2 PUNTU	3-4 PUNTU	5 PUNTU
ELEMENTUAK	Ikasleak sorturiko irudian ez dira beharrezko elementuak ageri.	Agertu beharreko hainbat elementu ikus daitezke irudian.	Ikasleak elementu garrantzitsuenak gehitu ditu bere irudian.	Elementu guztiak zehatz ageri dira irudian.
ELEMENTUEN ARTEKO LOTURAK	Ikasleak ez du irudiko elementuen arteko lotura logikorik adierazi.	Ez da elementuen arteko loturarik egiten edo lotura horiek okerrak dira.	Orokorrean elementuen arteko lotura egin du, baina hainbat akats identifikatu daitezke.	Elementuen arteko lotura zuzen adierazi du ikasleak bere irudian.
HAINBAT ADIBIDE	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak lore eta etxe batzuen marrazkia egin du. 2. Ikasleak ez du marrazkirik egin. 			

